Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko abuztuaren 7a, asteartea — 151 — Martes, a 7 de agosto de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Aramako 1 sektorearen plan partzialaren ingurumen-txosten estrategikoa.*

1. *Aurrekariak.*

Aramako Udalak hasi da 1 sektorearen plan partzialaren izapidetzen.

Izapidetze horren esparruan, 2018ko martxoaren 13an, Aramako Udalak idatzi bat aurkeztu du, sektore horren plan partzialaren zirriborro batekin eta ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ingurumen-ebaluazio estrategiko sinpletua egin dezan eta dagokion ingurumen-txosten estrategikoa egin igorri dezan.

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoaren, 6.2. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, plan partzialari ingurumen-ebaluazio sinpletua egin dakioke, horretarako 21/2013 Legearen, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoaren, 29. artikulutik 32. artikulura xedatutako prozedurari jarraikiz. Aurrekoarekin bat, ingurumen-organoak erasandako administrazioei, pertsonei eta instituzioei kontsulta egin behar die, eta kontsulta horien emaitzak ikusita, ingurumen-txosten estrategikoa egin behar du, horren bidez erabakiz, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideei jarraituta, planak ingurumenean ondorio adierazgarriak eragingo dituen, eta hein horretan, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren ohiko prozedura bete behar duen, ala ez duen halako eraginik izango, txostenean bertan ezarritako terminoetan.

2. *Kontsulta ukitutako administrazioei, interesatutako pertsonei eta publikoari orokorrean.*

21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta plan partzialaren eta ukitutako lurralde-esparruaren ezaugarriei buruzko informazioan oinarrituta, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak honako administrazio eta erakunde hauek jo ditu interesduntzat eta kontsulta egin die; horiei organo sustatzaileak sortutako dokumentazioa bidali zien:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Kulturako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.

— GFAk Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Errepideen Kudeaketako eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe ambiental estratégico del plan parcial del sector 1 en Arama.*

1. *Antecedentes.*

El Ayuntamiento de Arama ha iniciado la tramitación del plan parcial del sector 1.

En el marco de dicha tramitación, con fecha de 13 de marzo de 2018, el Ayuntamiento de Arama ha presentado un escrito, acompañado de un borrador del plan parcial de este sector y del documento ambiental estratégico, para que esta Dirección General de Medio Ambiente lleve a cabo la evaluación ambiental estratégica simplificada y emita el correspondiente informe ambiental estratégico.

Según lo dispuesto en el artículo 6.2 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, el plan parcial debe ser objeto de una evaluación ambiental simplificada, siguiendo para ello el procedimiento establecido en los artículos 29 al 32 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental. De acuerdo con lo anterior, el órgano ambiental debe realizar consultas a las administraciones, personas e instituciones afectadas, y de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre y a la vista del resultado de las consultas efectuadas, emitir un informe ambiental estratégico donde se determine, si el plan produce efectos significativos sobre el medio ambiente y debe, por tanto, someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria o no los tiene, en los términos establecidos en el propio informe.

2. *Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en la información respecto a las características del plan parcial y el ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

— Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la DFG.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Gestión y Planificación de carreteras de la DFG.

EK\CV GAO-I-2018-05508

— GFAren Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.

— Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondareko Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hirigintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— Ihobe.

— URA Uraren Euskal Agentzia.

— Gipuzkoako Ur Kontsortzioa.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.

— Goimen. Goierriko Landa Garapenaren Agentzia.

— Goieki. Goierriko Garapenaren Agentzia.

— Sasietako Mankomunitatea.

— EHNE.

— Enba.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki talde ekologista.

— Ekologistak Martxan.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

Era berean, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko atarian, publikoak oro har eta interesdun orok egokitzat jotako ekarpenak egin ahal izateko, betiere ingurumen-gaiei buruz.

Horretarako epea amaitu eta txosten hau egin artean, honako erantzun hauek jaso ditugu:

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi duenez, landa-inguruan aurreikusitako inpaktuei buruz plan partzialaren ingurumen-dokumentu estrategikoak jasotako balorazioak ikusita, ezinbestekoa da neurri egokiak ezartzea aurreikusitako hirigintza-hazkundeak landa-eremuan sortutako sektore-eragina zuzentzeko eta/edo konpentsatzeko.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak ez du oharrik egin.

— URA Uraren Euskal Agentziak jakinarazi du 1 sektorean errekasto txiki bat dagoela, eta, hautatutako antolamendua ikusita, ez da aurreikusi plan partziala garatzeak inola ere eragingo dionik. Hala ere, egiaztatu egin beharko da obren lur-mugimenduetan bertara isurketarik gertatzen ez dela, eta haren inguruko birlandaketak egiten direla bertako zuhaixka-espezieekin, inguru horri dagozkionekin. Edonola ere, hirigintza-obrek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena izan beharko dute. Horrez gain, plan partzialak kuantifikatu egin beharko du bertako jarduketak duen ur edangarriaren eskaria; hornidurari dagokion Gipuzkoako Uren Kontsortzioaren eta saneamenduari dagokion kudeatzailearen aldeko txostenak ere izan beharko ditu, behar bezala justifikatuko dutenak egungo azpiegiturek nahikoa gaitasun dutela behar berriei zerbitzua emateko.

— Dirección de Movilidad y Transporte público de la DFG.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Medio Natural y Cambio climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.

— Dirección de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno Vasco.

— Dirección de Atención de emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— Ihobe.

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Goimen. Agencia de Desarrollo Rural del Goierri.

— Goieki. Agencia de Desarrollo del Goierri.

— Mancomunidad de Sasieta.

— EHNE.

— Enba.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan.

— Asociación Ambiental Landarlan.

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco señala que, a la vista de las valoraciones contenidas en documento ambiental estratégico del plan parcial sobre los impactos previstos en el medio agrario, resulta imprescindible que se establezcan las oportunas medidas que corrijan y/o compensen la afección sectorial agraria ocasionada por el crecimiento urbanístico previsto.

— La Confederación Hidrográfica del Cantábrico no formula observaciones.

— La Agencia Vasca del Agua URA informa que en el sector 1 existe una pequeña escorrentía que, a la vista de la ordenación elegida, no se prevé que vaya a ser afectada por el desarrollo del plan parcial; únicamente deberá vigilarse que en los movimientos de tierras durante las obras no se generen vertidos al mismo y las revegetaciones en su entorno se realicen con especies arbustivas autóctonas y propias del entorno. En cualquier caso, las obras de urbanización deberán contar con autorización de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico. Además, el plan parcial deberá incluir la cuantificación de la demanda de agua potable que genere sus actuaciones, así como los informes de conformidad, tanto del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa en abastecimiento como del gestor correspondiente en saneamiento, que justifiquen la suficiencia de la capacidad de las infraestructuras existentes para dar servicio a las nuevas necesidades.

EK\CV GAO-I-2018-05508

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak, behin aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, ondorioztatu du plan hori egikaritzeak ez dakarrela osasun publikoarentzako inpaktu nabaririk, ingurumen-inpaktuaren ikerketa egitean edo ebaluazioa bera egitean kontuan izan beharreko funtsezko alderdirik dakarrenik.

— Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du ez dagoela Kultura Ondaretzat jotako elementurik bertan.

— Ihobek jakinarazi duenez, leku hori ez dago lurra kutsatu dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten zoruen inbentarioan. Nolanahi ere, jakingo balitz gune horretan kutsakorra izan daitekeen jardueraren bat egin dela, 4/2015 Legearen edo 9/2005 Errege Dekretuaren eranskinetan aipatutakoren bat, inbentarioan jaso beharko litzateke gunea, eta bertan jasota egotearen ondorio berberak izango lituzke. Kutsadura zantzurik aurkitzen bada, egitate horren berri eman beharko zaio Ingurumeneko Sailburuordetzari.

Erantzunak eta ingurumen-txosten estrategikoa Aramako Udalari bidaliko zaizkio, eta beranduago erantzunik jasoko balitz, hura ere Udalari bidaliko zaio ahal bezain laster, kontuan izan dadin plan partziala idaztean eta izapidetzean.

*3. 1 sektoreko plan partzialaren deskribapena.*

Aramako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) testu bategina behin betiko onartu zen Mugikortasuneko eta Lurralde Plangintzako Departamentuko titularraren Foru Arauaren, 2017ko abenduaren 13koaren, bitartez. Aipatutako dokumentuak zehazten zituen eremuen artean zegoen 1 sektorea izeneko bizitoki-sektore urbanizagarria. HAPOaren hirigintza-fitxak eremu horretarako ezartzen zituen egiturazko antolamendu alorreko aurreikuspenak, eta geroko plan partzial batera bidaltzen zuen, antolamendu xehatua definituko zuen plan batera, alegia. Plan partzial horri egingo zaio orain ingurumen-ebaluazio estrategiko sinpletuaren prozedura.

1 sektorea herrigunearen hegoaldeko mugan dago, GI-3871 foru errepidearen mendebaldean, zehazki R1-Atari sektorearen, aurreko Arau Subsidiarioak garatzean egikaritu zenaren, atzealdean. Plan partziala egiteko egindako jasotze topografikoa eta partzelena egin ondoren, sektorearen azalera 12.156,98 metro koadroan gelditu da; HAPOko fitxan agertzen dena handixeagoa da, 12.226 metro koadrokoa.

HAPOak sektore horren erabilera bereizgarri gisa zehazten zuen bizitoki-eraikin isolatuena, eta aukera ematen zuen gehienez sabai eraikigarriaren % 20raino blokeko eraikuntzetara bideratzeko. Gehienez aurreikusitako hirigintza-eraikigarritasuna 4.320 metro koadrokoa zen. Horrez gain, ezartzen zuen espazio libreen tokiko sistemak posizio zentrala hartu behar zuela sektorean, eta inguruan zegoen espazio libreen tokiko sistemarekiko jarraitua izan behar zuela.

Premisa horiei jarraikiz, plan partziala idaztean 4 antolamendu-aukera landu dira. Horien arteko ezberdintasunak, funtsean, planteatutako 2 bloke-eraikinen posizioa da.

— 1. aukera: 1. blokea erdiko espazio librean dago, eta bigarrena, sektorearen hegoaldeko mugan. Aukera hori alde batera utzi da, berdegunerako erdiko espazioaren tamaina murriztea baitakar, eta bigarren blokea magalak gorantz egiten duen espazio batean kokatu behar baita, eta horrek inpaktu bisual handiagoa sortzen du foru errepidetik.

— 2. aukera: aurrekoak bezala, blokeetako bat erdiko espazioan mantentzen du, baina bigarren blokea hego mendebaldeko mugara lekualdatzen du. Antolamendu hori ere alde batera utzi da, aurrekoaren arrazoi berberengatik.

— La Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco, una vez estudiada la documentación aportada, concluye que la ejecución del citado plan no presenta impactos de consideración para la salud pública que supongan aspectos fundamentales que deban ser tenidos en cuenta a la hora de la realización del estudio de impacto ambiental o en el propio proceso de evaluación.

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco informa que no se localizan elementos catalogados de Patrimonio Cultural.

— Ihobe informa que dicho emplazamiento no se encuentra incluido en el Inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo. No obstante, si se conociera que la zona hubiera soportado alguna actividad potencialmente contaminante de las mencionadas en los Anexos de la Ley 4/2015 o Real Decreto 9/2005, debería ser objeto de inventario y las implicaciones serían las mismas que si formara parte del mismo. Igualmente en el caso de detectarse indicios de contaminación, se deberá comunicar este hecho a la Viceconsejería de Medio Ambiente.

Las respuestas, junto con informe ambiental estratégico, serán remitidas al Ayuntamiento de Arama, y en caso de recibirse alguna respuesta posterior, ésta también será remitida al Ayuntamiento en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción y tramitación del plan parcial.

*3. Descripción del plan parcial del sector 1.*

El Texto Refundido de Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Arama fue definitivamente aprobado por Orden Foral de la titular del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio con fecha 13 de diciembre de 2017. Entre los distintos ámbitos que delimitaba el reseñado documento, se encontraba el sector urbanizable residencial denominado sector 1, ámbito para el que la ficha urbanística del PGOU establecía las previsiones en materia de ordenación estructural, remitiendo a un posterior plan parcial la definición de la ordenación pormenorizada. Este plan parcial es el que ahora va a ser sometido al procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada.

El sector 1 se localiza en el lindero sur del casco urbano del municipio, al oeste de la carretera foral GI-3871, en concreto en la parte trasera del Sector R1-Atari, que fue ejecutado en desarrollo de las precedentes Normas Subsidiarias. Su superficie, tras el levantamiento topográfico y parcelario realizado para la elaboración del plan parcial, ha quedado establecida en 12.156,98 m$^2$, algo inferior a la que aparecía en la ficha urbanística del PGOU –12.226 m$^2$–.

El PGOU determinaba como uso característico de este sector el de la edificación residencial aislada, posibilitándose que hasta un máximo del 20 % del techo edificable se destinara a edificación en bloque. La edificabilidad urbanística máxima contemplada era de 4.320 m$^2$. Asimismo, establecía que el sistema local de espacios libres debía ocupar una posición central en el sector y continua respecto al sistema local de espacios libres contiguo existente.

Con arreglo a esas premisas, en los trabajos de redacción del plan parcial, se han analizado 4 alternativas de ordenación que varían básicamente en la posición, dentro del sector, en la que se ubicarán los 2 edificios en bloque planteados:

— 1.ª Alternativa: el 1.º bloque se localiza en el espacio libre central y el segundo en el lindero sur del sector. Esta alternativa ha sido desechada pues supone reducir la entidad del espacio central para zona verde y presenta el inconveniente de situar el segundo de los bloques en un espacio en el que la ladera sube, lo que genera un impacto visual mayor desde la carretera foral.

— 2.ª Alternativa: mantiene uno de los bloques en el espacio central como la anterior, pero el segundo bloque lo traslada al lindero suroeste, ordenación que también se ha desechado por los mismos motivos que en el caso anterior.

EK\CV GAO-I-2018-05508

— 3. aukera: bi eraikin multzokatzen ditu ekialdeko mugan, eta familia bakarreko etxebizitzetako 6 3ko bi bloketan ezartzen ditu. Tipologia hori ez dago herrian, bi familiako etxeak baitira nagusi; hori dela eta, alde batera utzi da aukera hori ere.

— 4. aukera: Bloke-eraikinak eremuaren beheko aldean daude, eta, hein batean, «estali» egiten dituzte, kasu batean, R1-Atari sektoreko eraikinek, eta, bestean, plan partzialak foru errepidearen aurrean antolatzen duen eraikin isolatuen partzeletako batek. Aukera hori hautatu da.

Ingurumen-dokumentu estrategikoak antolamendu-aukera horien analisi bat egin du, eta balioetsi egin ditu inguruaren hainbat alderdiri sortutako afekzioak, adibidez, erliebearen eraldaketak, paisaiaren kalitate-galera, nekazaritza-kalitateko zoruen galera, ur-eskaria areagotzea, hiri-hondakin solidoak eta hondakin-urak sortzea eta abar. Analisi horretatik lortutako ondorioa da aukera guztien eraginak oso antzekoak direla, eta ingurumen eta paisaia alorrean ezberdintasunak ezartzeko erabakigarria dela eraikinak kokatzea inpaktu bisual txikiena eragiteko moduan, eta hiriaren eta landaren arteko trantsizioa ahal bezain modu abegitsuan egitea.

Ondorioz, azkenean 4. aukera hautatu da. Aukera horretan, blokeko etxebizitzak hobeto integratu dira hiri-inguruan, eta foru errepidetik sortzen duten inpaktu bisuala oso txikia da, gainerako eraikinekin lausotzen baita. Gainera, berdegune garrantzitsu bat sortzen du erdian, dagoeneko badagoenari jarraitzen diona, eta irizpide hori sektore horrentzako HAPOaren hirigintza-fitxan jasota dago.

Halaber, aukerak aztertzean, ingurumen-dokumentu estrategikoak alde batera utzi du 0 aukera, Aramako etxebizitza-beharrei ez dielako erantzunik ematen. Bizitoki-garapen hori egiteko beste kokapen-aukerarik ez da bilatu, lan hori HAPOa izapidetzeko prozesuaren barruan egin baitzen, eta bertan definitu baitziren hautemandako etxebizitza-eskariari erantzuna emateko guneak, adibidez, 1 sektorea.

Horrenbestez, plan partzialean azkenean proposatutako antolamendua osatzen dute bi familiako etxebizitzen 7 partzelak, bloke-eraikinen bi partzelak, eta, azkenik, 272 metro koadroko ekipamendu-partzela txiki batek. Hori guztia erdiko espazio berde batek inguratuko du. Bidezaintzari dagokionez, dagoeneko hor, R1-Atari sektorearen eraikinen atzealdean, dagoen bidea baliatzen da bi alboko arteria sortzeko, antolatutako partzeletarako sarbidea emango dutenak; haien alboetan jarriko dira ibilgailuentzako aparkalekuak, publikoak eta libreak. Horrez gain, sektorearen barruko trazatuan, hobetu egin da egun «Zaldunbide» izenez ezagutzen den bidearen sekzioa.

*4. Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotako irizpideetan oinarritutako analisia.*

Plan partzialak malda txikia duen area bati eragiten dio, dagoeneko urbanizatuta dauden lursailen ondoan dagoen bati. Egun, zoruen erabilera nekazaritzakoa eta abeltzaintzakoa da, gehienbat segarako belardiak dira, baina partzelaren batek ere fruta-arbolak eta baratze-gune bat dauzka.

Gunea ez dago Natura 2000 sarean jasotako inongo espaziotik gertu, ezta natura-interes handia izateagatik babestuta dagoen beste inongo espaziotik ere. Horrez gain, akuiferoen zaurgarritasun-arrisku baxuko edo oso baxuko gune batean dago, eta barruan ez dago katalogatutako ondare historiko artistiko edo arkeologikorik. Dena den, kontsulten erantzunetan, URAk adierazi du 1 sektorea iparraldetik hegoaldera gurutzatzen duen erreka jabari publiko hidraulikokoa dela; beraz, hura ingurumen-gune sentikorra izango da, 3/1998 Legearen, EAEko Ingurumena Babestekoaren, 51. artikuluan jasotako definizioaren arabera. Beraz, plan partzialak 12.156,98 metro koadroko hirigintza-proiektu bat ingurumen-gune sentikor batean egiteko esparrua ezartzen duenez, hirigintza-proiektu horri egin lekioke

— 3.ª Alternativa: aglutina las dos edificaciones en bloque en el lindero este, disponiendo 6 de las viviendas unifamiliares en dos bloques de 3, tipología esta que no se encuentra en el resto del municipio, en la que priman las viviendas bifamiliares, motivo por el que ha sido desechada.

— 4.ª Alternativa: Los edificios en bloque se localizan en la zona baja del ámbito, y en parte, se encuentran «tapados» en uno de los casos, por las edificaciones del sector R1-Atari, y, en el otro, por una de las parcelas de edificación aislada que el plan parcial ordena en el frente de la carretera foral. Se opta por esta alternativa.

El documento ambiental estratégico ha realizado un análisis de estas alternativas de ordenación valorando las afecciones a distintos aspectos del medio como la alteración del relieve, la pérdida de calidad paisajística, la pérdida de suelos de calidad agrológica, el aumento de la demanda de agua y la generación de residuos sólidos urbanos y aguas residuales, etc. La conclusión obtenida de este análisis es que las afecciones son muy similares entre las diferentes alternativas y que el establecimiento de las edificaciones, de modo que su impacto visual sea el menor posible y que la transición entre lo urbano y rural se haga de la manera más amable posible, es determinante a la hora de establecer las diferencias a nivel ambiental y paisajístico.

En consecuencia, se opta finalmente por la 4.ª alternativa, en la que las viviendas en bloque quedan mejor integradas en el medio urbano generando un impacto visual desde la carretera foral muy leve al quedar difuminado entre otras edificaciones. Además, genera un espacio o zona verde central de entidad en continuidad al existente, uno de los criterios incluidos en la ficha urbanística del PGOU para este sector.

Asimismo, en este análisis de alternativas, el documento ambiental estratégico ha descartado la alternativa 0, ya que impide dar respuesta a las necesidades residenciales del municipio de Arama. Tampoco se han buscado otras alternativas de ubicación para este desarrollo residencial, ya que esta tarea se llevó a cabo durante el proceso de tramitación del PGOU, que culminó con la definición de las áreas que iban a permitir cubrir la demanda residencial detectada, entre ellas, el sector 1.

Por tanto, la ordenación finalmente propuesta en el plan parcial consta de 7 parcelas de viviendas bifamiliares, dos parcelas de edificación en bloque y, finalmente, una pequeña parcela de 272 m$^2$ de equipamiento, todo ello rodeando un espacio verde central. En materia de vialidad, se aprovecha el vial ya existente en la parte trasera de los edificios del sector R1-Atari para arrancar dos arterias laterales que darán acceso a las parcelas ordenadas, en cuyos laterales se dispondrán las plazas de aparcamiento de vehículos de acceso público y libre. Por otra parte, en el trazado que discurre dentro del sector, se mejora la sección del actual camino público conocido como «Zaldunbide».

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de evaluación ambiental.*

El plan parcial afecta a un área con una ligera pendiente y colindante a terrenos ya urbanizados. Actualmente, sus suelos se vienen destinando a usos agropecuarios: mayoritariamente prados de siega aunque hay también una parcela que contiene frutales y una zona de huerta.

Esta área no está incluida ni cerca de ningún espacio de la Red Natura 2000 o de otro tipo de enclave protegido por su elevado interés naturalístico. Además, se encuentra en una zona de bajo o muy bajo riesgo de vulnerabilidad de acuíferos y no cuenta en su interior con patrimonio histórico artístico o arqueológico catalogado. Sin embargo, URA ha informado en su respuesta a consultas que, el regato que cruza el sector 1 de norte a sur es dominio público hidráulico, por lo que el mismo constituirá una zona ambientalmente sensible según la definición incorporada al artículo 51 de la ley 3/1998 de protección del medio ambiente del País Vasco. Por tanto, dado que el plan parcial establece el marco para un proyecto de urbanización de 12.156,98 m$^2$ en una zona ambientalmente sensible, dicho

ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, 3/1998 Legearen, EAEko Ingurumena Babestekoaren, 1B eranskinari jarraikiz.

21/2013 Legearen, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoaren, V. eranskinean oinarritutako analisiari dagokionez:

1. Planaren ezaugarriak. Planak ez dio eraginik sortuko beste inongo plani edo programari, eta bat dator hierarkian goragokoak diren planek ezarritakoarekin, adibidez, EAEko ibaien eta erreken antolamenduko LPSak ezarritakoarekin. Gainera, planak barruan hartzen ditu Aramako HAPOaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozesuan ezarritako ingurumen-zehaztapenak, eta haren ingurumen-dokumentu estrategikoak barruan hartzen ditu neurri babesleak eta zuzentzaileak, hirigintza- eta eraikuntza-planek garapen jasangarria sustatu dezaten, ura eta energia aurreztuz eta bertako landaredia leheneratuz. Azkenik, ingurumenean ez da hauteman plan partzialetik eratorritako arazo nabarmenik, baldin eta ukitutako eremuan egindako jarduketak eta jarduerak egiten badira indarrean dagoen segurtasun eta osasun alorreko, ingurumen alorreko, soinu-kutsaduraren alorreko eta uren alorreko araudiari jarraikiz.

1. Eraginen eta seguruenik ukituko den eremuaren ezaugarriak. Honako hauek dira plan partzialak ukitutako eremuaren barruan ingurumen-dokumentu estrategikoak aipatzen dituen ingurumen-balio interesgarri bakarrak:

— Komunitate-intereseko habitatak: dagoen kartografiaren arabera, eremuaren ipar ekialdea kenduta, plan partziala garaiera baxuko sega-zelai pobreak (6510) komunitate-intereseko habitataren gainean garatuko da. Nolanahi ere, kontuan izan behar da gune horretan balio naturala urria dela, antropizatuta dagoelako, baratzeekin eta lorategi itxurako berdeguneekin.

— Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren arabera balio estrategiko handikoak diren lurzoruak: eremuko lurzoruen zati bat kategoria horren barruan dago. Plan partzial honen iturri den HAPOaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozesuan aztertu zen proposatutako bizitoki-aukerek nekazaritzako balio handiko lurzoruetan sortutako inpaktua. Horietan guztietan hauteman zen inpaktu hori, finkatutako hirigintza-eremu guztien inguruko lurzorua kategoria horren barruan zegoelako. 1 sektorean ukitutako partzelen gehiengoaren nekazaritza-erabilera sega-zelaiena zenez, eta horien sarbideek eraginik ez zutenez, balioetsi zen inpaktu hori neurrizkoa-larria izango zela, baina saihetsezina, Aramaren egungo herrigunearen inguruan garapen jasangarria nahi bazen. Dena den, HAPOa saiatu zen lurzoru horietan sortutako eragina minimizatzen, proposatutako bizitoki-erabileretan bloke-etxebizitzen tipologia sartuz; izan ere, tipologia horrek murriztu egiten zuen hautemandako etxebizitza-beharrei erantzuteko behar zen lurzoruaren kontsumoa.

Aipatutako balioetan eragindako afekzioez gain, paisaian eragindako inpaktua ere aztertzen du ingurumen-dokumentu estrategikoak; izan ere, garapena finkatutako gune baten ondoan kokatuta badago ere, paisaia-kalitate handiko zelai-pasaia baten mugan kokatuta dago. Neurrizkotzat jo da, hautatutako antolamendu-aukerak inpaktu hori minimizatu egiten duelako, eta neurri zuzentzaileak diseinatu direlako –ukitutako eremuak leheneratzea, beharrezko lur-mugimenduak murriztea eta abar–.

Bere aldetik, URAren txostenak, kontsulten erantzunetan, jakinarazten du errekasto batek sektorea gurutzatzen duela hegoaldetik iparralderako noranzkoan, eta beherantz estalita jarraitzen duela, Artzabaltza errekan, Oriaren ibaiadarrean, isuri arte, eskuineko ertzetik. Hautatutako antolamenduak errespetatu egiten ditu errekastoaren trazatua, eta haren inguruan ezarri dira tokiko sistemen berdeguneetako batzuk. Zentzu berean, haren eskuineko ertzean kokatutako aparkalekuek errespetatu egiten dute pasabide-zortasuna. Beraz, ez da aurreikusi planaren garapenak eraginik sortuko duenik errekasto horretan.

proyecto de urbanización podría estar sometido a evaluación de impacto ambiental según el anexo 1B de la Ley 3/1998, de protección del medio ambiente del País Vasco.

Por lo que respecta al análisis en base al anexo V de la Ley 21/2013 de evaluación ambiental:

2. Las características del plan. El plan no causará efecto sobre ningún otro plan o programa y es acorde con lo establecido en los planes jerárquicamente superiores, tales como el PTS de Ordenación de los ríos y arroyos de la CAPV. Además, el plan integra las determinaciones ambientales que fueron establecidas durante el proceso de evaluación ambiental estratégica del PGOU de Arama, y su documento ambiental estratégico incorpora medidas protectoras y correctoras para que el proyecto de urbanización y los de edificación que lo desarrollarán promuevan el desarrollo sostenible mediante el ahorro de agua y energía y la restauración con vegetación autóctona. Finalmente, no se detectan problemas significativos sobre el medio ambiente derivados de la ejecución del plan parcial, siempre y cuando las actuaciones y actividades que se lleven a cabo en el ámbito de afección se realicen atendiendo a la normativa vigente en materia de seguridad y salud, medio ambiente, contaminación acústica y aguas.

2. Las características de los efectos y del área probablemente afectada. Los únicos valores ambientales de interés que se citan en el documento ambiental estratégico dentro del área afectada por el plan parcial son los siguientes:

— Hábitats de interés comunitario: según la cartografía existente, excepto en el noroeste del ámbito, el plan parcial se desarrollará sobre el hábitat de interés comunitario prados pobres de siega de baja altitud (6510). Sin embargo, debe tenerse en cuenta que, en esta área, su valor natural es escaso, ya que éste se encuentra antropizado por la presencia de huertas y zonas verdes ajardinadas.

— Suelos de Alto valor estratégico según el PTS Agroforestal: parte de los suelos del ámbito está incluido dentro de esta categoría de suelos. Durante el proceso de evaluación ambiental estratégica del PGOU del que emana este plan parcial, se analizó el impacto sobre los suelos de alto valor agrológico de las alternativas residenciales propuestas. En todas ellas, se detectó dicho impacto ya que, todo el suelo situado alrededor de los ámbitos urbanísticos consolidados se incluía en dicha categoría. Dado que, en el sector 1, el uso agrícola mayoritario de las parcelas afectadas era el de prados de siega y los accesos a las mismas no quedaban alterados, se valoró este impacto como moderado-severo pero inevitable si se quería un desarrollo sostenible alrededor del núcleo actual de Arama. Aun así, el PGOU intentó minimizar la afección sobre este tipo de suelo con la inclusión de la tipología de vivienda en bloque dentro de los usos residenciales propuestos, lo cual reducía el consumo de suelo para cubrir las necesidades residenciales detectadas.

Aparte de las afecciones sobre los valores anteriores, el documento ambiental estratégico analiza también el impacto paisajístico, dado que, aunque el desarrollo se ubica contiguo a una zona consolidada, se ubica en el límite de un paisaje de campiña de alta calidad paisajística. Se considera moderado, dado que se ha optado por una alternativa de ordenación que minimiza dicho impacto y se han diseñado medidas correctoras –restauración de las áreas afectadas, reducción de los movimientos de tierra necesarios, etc.–.

Por su parte, el informe de URA en su respuesta a consultas informa de la presencia de un regato que cruza el sector en sentido sur norte para discurrir aguas abajo en cobertura hasta su desembocadura en el arroyo Artzabaltza, afluente del Oria por su margen derecha. La ordenación elegida respeta el trazado de la escorrentía y en su entorno se distribuye parte de los espacios verdes de los sistemas locales. En el mismo sentido, los aparcamientos ubicados en su margen derecha respetan la servidumbre de paso. Por tanto, no se prevé que el desarrollo del plan vaya a generar afecciones en dicho regato.

EK\CV GAO-I-2018-05508

Eremuari eragiten dioten arriskuei dagokienez, ez dago kutsatuta egon daitekeen zorurik, ezta uholde-arriskurik ere.

Ingurumen-kalitateko muga-balioak edo helburu-balioak gainditzeari dagokionez, ingurumen-dokumentu estrategikoak barruan hartzen du plan partzialaren azterketa akustiko bat, eta bertan balioesten da eremuan bide-sistemak izango duen inpaktua –N-1, GI-2131 eta GI-2133 errepideek, eta, bigarren mailan, herrigunea gurutzatzen duten kaleek eta bideek–, baita 213/2012 Dekretuan, urriaren 16koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kutsadura Akustikoari buruzkoan, ezarritako soinu-kalitatearen helburuen betetze-maila ere. Honako hauek dira azterketa horren funtsezko ondorioak:

— Bi eremu akustiko mota ezberdindu dira eremuan: a tipologia (bizitokikoa) eta e tipologia (sanitarioa, irakaskuntzakoa eta kulturala). Azken horrek ditu kalitate akustikoko helburu hertsagarriagoak 213/2012 Dekretuan, eta horiek izango dira ez betetze posibleak balioesteko erabiliko diren mugak.

— Kanpoko zarata: azterketaren eremua gurutzatzen duten bideetatik datozen igorpen akustikoek sortzen dituzten inmisio akustiko mailak bizitoki-erabilerarako eta erabilera sanitariorako, irakaskuntzarako edo kulturalerako aldekotzat jo daitezke aztertutako hiru aldietan: eguna (Ld), arratsaldea (Le) eta gaua (Ln).

— Zarata fatxadetan: etorkizunean presente egongo diren eremu akustikoaren bi tipologietan aztertutako hiru aldietarako aldekoa. Eguneko aldian gehienez 49,9 db(A)-ra iristen da, eta kalitate-helburu hertsagarriena 55 db(A) da. Gaueko aldian erregistratutako gehienekoa 43,4koa da, eta kalitate akustikoaren helburu hertsagarriena 45 db(A)-koa da.

— Aipatutako emaitzak ikusita, badirudi planteatutako antolamenduak ez dakarrela arazorik kalitate akustikoaren helburuak gainditzeari dagokionez; beraz, ez da planteatu 213/2012 Dekretuaren 39. artikuluan aurreikusitako aukeren azterketa, ezta 40. artikuluan jasotako neurrien definizioa ere.

Ondorioz, aurreko guztiarekin bat, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 31. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuak aurreikusitakoaren karietara, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak honako ingurumen-txosten estrategiko hau egin du, honako termino hauetan:

*Lehenengoa.* 1 sektorearen plan partzialari ez egitea ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoaren, V. eranskinean ezarritako irizpideei jarraikiz egindako azterketarekin bat etorriz, eta kontuan izanda egindako kontsulten emaitza, ondorioztatu baita ingurumenean ez duela eragin negatibo nabarmenik izango, baldin eta betetzen badira ingurumen-txosten estrategiko honen bigarren apartatuan xedatutako baldintzak.

*Bigarrena.* Ingurumen alorreko honako neurri babesleak eta zuzentzaileak jasoko dituzte 1 sektorearen plan partzialak eta haren ingurumen-dokumentuak.

1. Plan partzialak hartu beharko ditu haren ingurumen-dokumentu estrategikoan jasotako neurri babesle, zuzentzaile eta/edo konpentsatzaileak, baita jarraipen-programa ere. Ondore horietarako, ingurumen-dokumentu estrategikoa eta haren eranskina –azterketa akustikoa– txertatuko dira plana osatzen duten dokumentuetan. Horrez gain, hirigintza-arauetan ezarri beharko da ingurumen-dokumentu estrategikoaren «6. Ingurumen integrazioa: neurri babesle, zuzentzaile eta/edo konpentsatzaileak» eta «7. Jarraipenaren eta ingurumen-zaintzaren programa» atalen izaera normatiboa. Horiek osatu beharko dira ingurumen-txosten estrategiko honetan xedatutakoarekin, eta zehaztapen horiei egokitu beharko zaie hirigintzako esku-hartzea.

En cuanto a los riesgos que afectan al ámbito, no existen suelos potencialmente contaminados ni problemas de inundabilidad.

En lo que se refiere a la superación de valores límite o de objetivos de calidad ambiental, el documento ambiental estratégico incluye un estudio acústico del plan parcial, en el que se valora el impacto que tendrá en el ámbito el sistema viario –las carreteras N-1, GI-2131 y GI-2133 y secundariamente, las calles y viales que atraviesan la zona urbana–, así como el grado de cumplimiento de los objetivos de calidad sonora establecidos en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Las conclusiones fundamentales de dicho estudio son las siguientes:

— Se han diferenciado dos tipos de áreas acústicas dentro del ámbito: tipología a (residencial) y tipología e (sanitario, docente y cultural). Siendo esta última la que tiene objetivos de calidad acústica más restrictivos en el Decreto 213/2012, serán sus límites los que se utilizarán para valorar posibles incumplimientos.

— Ruido exterior: las emisiones acústicas procedentes de los viales que atraviesan el ámbito de estudio, generan unos niveles de inmisión acústica que pueden valorarse como favorables para el uso residencial y para el uso sanitario, docente o cultural en los tres periodos analizados: dia (Ld), tarde (Le) y noche (Ln).

— Ruido en fachadas: Favorable para los tres periodos analizados en las dos tipologías de área acústica que estarán presentes a futuro. En el periodo día se alcanzan como máximo los 49,9 db(A) siendo el objeto de calidad más restrictivo 55 db (A) y en el caso del período noche el valor máximo registrado es de 43,4 siendo 45 db(A) el objetivo de calidad acústica más restrictivo.

— A la vista de los anteriores resultados, parece que la ordenación planteada no presenta problemas de superación de objetivos de calidad acústica por lo que no se ha planteado el estudio de alternativas contemplado en el artículo 39 del Decreto 213/2012 ni la definición de medidas del artículo 40.

En consecuencia, de acuerdo con todo lo anterior y según lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y, en virtud de lo previsto en el Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, esta Dirección General emite el presente Informe Ambiental Estratégico en los términos siguientes:

*Primero.* No someter el plan parcial del sector 1 a evaluación ambiental estratégica ordinaria ya que, de acuerdo con el análisis efectuado de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, y teniendo en cuenta el resultado de las consultas realizadas, se concluye que, siempre que se cumplan los términos que se establecen en el apartado segundo de este informe ambiental estratégico, no se van a producir efectos negativos significativos sobre el medio ambiente.

*Segundo.* El plan parcial del sector 1 y su documento ambiental estratégico incorporarán las siguientes medidas de protección y corrección ambiental.

1. El plan parcial deberá adoptar, con carácter preceptivo, el conjunto de medidas protectoras correctoras, y/o compensatorias propuestas en su documento ambiental estratégico así como el programa de seguimiento. A estos efectos, el documento ambiental estratégico y su anexo –el estudio acústico- se incluirán en la relación de los documentos constitutivos del plan. Asimismo, en las normas urbanísticas se deberá establecer el carácter normativo de los apartados 6. Integración ambiental: medidas protectoras, correctoras y/o compensatorias y 7. Programa de seguimiento y vigilancia ambiental del documento ambiental estratégico, complementados con lo dispuesto en este informe ambiental estratégico, a cuyas determinaciones deberá ajustarse la intervención urbanística.

2. Ingurumen-dokumentu estrategikoaren inbentarioa eta informazio-planoak aldatuko dira, hidrologia apartatuaren barruan sartzeko URAren txostenak azaldutako errekastoaren presentzia. Halaber, errekasto horretan eragindako inpaktu posibleak aztertuko dira, eta dagozkion neurri babesleak eta zuzentzaileak ezarriko dira; horien artean izango dira obren faseak iraun bitartean afekzioak saihesteko beharrezkoak –ibilgailuen trafikoa behar-beharrezkora murriztea jabari publiko hidraulikoak, behin-behineko dekantazio-baltsak eta sedimentuei eusteko hesiak jartzea eta abar–, eta errekastoaren ertzetan erribera-landarediaren azalera ahal beste berreskuratzekoak.

3. Obren faserako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburu bat garatuko da, obrako langileek erabili dezaten. Kontuan izan beharreko gainerako alderdiekin batera, ikusita zein gertu dagoen bizitoki-eremu bat, kontuan izango da kalitate akustikoaren babesa obrak garatu bitartean. Horrenbestez, fase horretan erabilitako makineria egokitu beharko zaio kanpoaldean erabiltzen den makineriaren soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legedian ezarritako xedapenei, eta, zehazki, aplikagarria denean, 212/2002 Errege Dekretuan, otsailaren 22koan, Kanpoaldean Erabiltzen diren Makina Jakin Batzuek Ingurumenean Eragiten dituzten Soinu-emisioak arautzen dituenean –524/2006 Errege Dekretuak, apirilaren 28koak, eraldatutakoa–, eta arau osagarrietan xedatutakoari.

4. Aztertu egingo da nekazaritzako sektorean aurreikusitako hirigintza-hazkundeak eragindako afekzioa konpentsatuko duten neurriak aplikatzeko aukera.

5. Aurreikusitako urbanizazioa eta eraikinak eraikuntza-eta eraikitze-eredu jasangarriago batera eta klima aldaketara doituagoko batera egokitzeko, honako hauetan jasotako neurriak eta ingurumen-jardunbide egokiak kontuan izan beharko dira: «EAEko etxebizitzen eraikuntza iraunkorrerako gida» (Ihoberen webgunea/argitalpenak) eta «Irtenbide naturalak Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketara egokitzeko» (udalsarea21.net webgunean/argitalpenak). Neurri horiek honako alderdi hauetan behintzat eragin beharko dute:

a. Materialak: lehengai berriztaezinen kontsumoa murriztea.

b. Energia: murriztea energia kontsumoa eta/edo energia-iturri berriztaezinetatik energia sortzea.

c. Ur edangarria: ur edangarriaren kontsumoa murriztea.

d. Ur grisak: sortutako ur grisak murriztea.

e. Atmosferikoa: gasen, hautsaren, beroaren eta argiaren emisioak murriztea.

f. Barruko kalitatea: barruko airearen kalitatea, konforta eta osasuna hobetzea.

6. Eremua birlandatzean, kontuan izango dira ere «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan» (UdalSarea 21 koadernoa, 20 b zk.). Bereziki zainduko da kanpoko espezie apaingarriak ez sartzen.

7. Plan partzialaren dokumentazioaren barruan sartuko da hornidura-eskari berrien kuantifikazioa, baita Gipuzkoako Uren Kontsortzioaren aldeko txostena ere, justifikatuko duena hornidura- eta saneamendu-azpiegiturek gaitasuna dutela plan partzialaren garapenak sortutako behar berriei zerbitzua emateko.

8. Ingurumen-dokumentu estrategikoak jarraipen-programaren eta ingurumen-zaintzaren kontrolak garatuko ditu, ingurumen-dokumentu estrategikoan zehaztutakoak. Honako hauek definituko dira: horiek egiteko maiztasuna, eduki zehatza eta horietako bakoitzak neurri zuzentzaileak eraginkorrak direla egiaztatzeko izango dituen adierazleak. Horrez gain, barruan sartuko dira jabari publiko hidraulikoari eragiten ez zaiola zain-

2. Se modificará el inventario del documento ambiental estratégico y los planos de información para incluir dentro del apartado de hidrología la presencia del regato puesta en evidencia en el informe de URA. Asimismo, se valorarán los posibles impactos sobre este curso de agua y se establecerán las medidas protectoras y correctoras correspondientes entre las que se encontrarán las necesarias para evitar afecciones durante las fases de obras –reducir al mínimo imprescindible el tráfico de vehículos en el dominio público hidráulico, instalación de balsas de decantación temporales y barreras de retención de sedimentos, etc.–, así como para la recuperación de la mayor superficie posible de vegetación de ribera en sus márgenes.

3. Para la fase de obras, se desarrollará un manual de buenas prácticas ambientales para su utilización por el personal de la obra. Entre los aspectos a tener en cuenta y vista la cercanía de una zona residencial, se tendrá en cuenta la protección de la calidad acústica durante el desarrollo de las obras, por lo que la maquinaria utilizada en dicha fase deberá ajustarse a las prescripciones establecidas en la legislación vigente referente a emisiones sonoras de maquinaria de uso al aire libre, y en particular, cuando les sea de aplicación, a lo establecido en el Real Decreto 212/2002, de 22 de febrero, por el que se regulan las emisiones sonoras en el entorno debidas a determinadas máquinas de uso al aire libre –modificado por el Real Decreto 524/2006, de 28 de abril–, y en las normas complementarias.

4. Se analizará la posibilidad de implementar medidas que compensen la afección sectorial agraria ocasionada por el crecimiento urbanístico previsto.

5. A fin de conseguir que la urbanización y las edificaciones previstas se ajusten a un modelo de edificación y construcción más sostenible y adaptado al cambio climático, se deberán considerar el conjunto de medidas y buenas prácticas ambientales contenidas en la «Guia de Edificación sostenible para la vivienda en la CAPV» (en hoja web de Ihobe/publicaciones) y en la guía «Soluciones Naturales para la adaptación al cambio climático en el ámbito local de la CAPV» (en hoja web de udalsarea21.net/Publicaciones). Dichas medidas deberán incidir al menos en los siguientes aspectos:

a. Materiales: reducción del consumo de materias primas no renovables.

b. Energía: reducción del consumo de energía y/o generación de energía a partir de fuentes no renovables.

c. Agua potable: reducción del consumo de agua potable.

d. Aguas grises: reducción en la generación de aguas grises.

e. Atmosférica: reducción de las emisiones de gases, polvo, calor y lumínicas.

f. Calidad interior: mejora de la calidad del aire interior, del confort y de la salud.

6. En la revegetación de este área, se tendrán también en cuenta las recomendaciones incorporadas en el «Manual para el diseño de jardines y zonas verdes sostenibles» (Cuaderno UdalSarea 21 n.º 20 b). Se tendrá especial cuidado en no introducir especies ornamentales alóctonas.

7. Se incluirá dentro de la documentación del plan parcial la cuantificación de las nuevas demandas de abastecimiento, así como el informe de conformidad del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa que justifique la capacidad de las infraestructuras de abastecimiento y saneamiento para dar servicio a las nuevas necesidades originadas por el desarrollo del plan parcial.

8. El documento ambiental estratégico desarrollará los controles del programa de seguimiento y vigilancia ambiental esbozados en el documento ambiental estratégico definiendo: la frecuencia de su realización, su contenido concreto y los indicadores que tendrá cada uno para comprobar que las medidas correctoras diseñadas son efectivas. Se incorporarán, asimismo, aquellos controles que sean necesarios para vigilar que no se

tzeko beharrezko kontrolak, eta indarrean dagoen araudian jasotako baimenak eskatuko dira plan partzialean aurreikusitako jarduketak garatu bitartean –urak, inpaktuaren ebaluazioa eta abar–. Horrez gain, definituko da nortzuk diren zaintza plana egiteko eta abian jartzeko arduradunak, zein jarraipen-txosten igorri behar diren eta zein maiztasunekin, eta horiek garatzeko behar den aurrekontua. Errepikapenak saihesteko, komenigarria litzateke jarraipen-programa hori koordinatzea HAPOarentzat ezarritakoarekin.

*Hirugarrena.* 21/2013 Legeak 31.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ingurumen-txosten estrategiko honek indarraldia galduko du eta berezkoak dituen eraginak sortzeari utziko dio, behin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan, aldaketa ez balitz onartuko argitalpenetik gehienez ere lau urteko epea igaro denean.

*Laugarrena.* Ingurumen-txosten estrategiko hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Zuzendaritza honen webgunean argitaratzeko agintzen dugu.

Donostia, 2018ko uztailaren 24a.—Mónica Pedreira Lanchas, Ingurumeneko zuzendari nagusia. (5508)

afecte al dominio público hidráulico y se solicitarán las autorizaciones establecidas en la normativa vigente durante el desarrollo de las actuaciones contempladas en el plan parcial –aguas, evaluación de impacto, etc.–. Además, se definirán los responsables de la elaboración y puesta en marcha del plan de vigilancia, los informes de seguimiento a emitir y su frecuencia, y el presupuesto necesario para su desarrollo. A fin de evitar redundancias, sería conveniente que este programa de seguimiento se coordinara con el establecido para el PGOU.

*Tercero.* De acuerdo a lo establecido en el artículo 31.4 de la Ley 21/2013, el presente informe ambiental estratégico perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si, una vez publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, no se hubiera procedido a la aprobación de la modificación en el plazo máximo de cuatro años desde su publicación.

*Cuarto.* Ordenar la publicación del presente informe ambiental estratégico en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web de esta Dirección.

San Sebastián, a 24 de julio de 2018.—La directora general de Medio Ambiente, Mónica Pedreira Lanchas. (5508)

EK\CV GAO-I-2018-05508